

KAPITAL SOZIALA

Ohi bezala, Etikum hau Nafarroako Fiareko bazkideen zenbatekoa eta kapital sozialaren kopuruaren datu eguneratua emanez hasiko gara, izan ere, **Proiektu honen oinarri soziala** izateaz gain, zuzenki, zenbaki horren araberakoa da finantza entitate batek eman dezakeen kredituaren tamaina.

2012an 375 bazkide baino gehiagoren ekarpenari esker 535.000 €-tik goiti bildu zen. 2013. urteko helburua oinarri soziala handitzen segitzea da, hala kapitalean nola bazkideen diren entitate eta pertsonen kopuruan. Lehenbiziko hiruhilekoan honako datuak eman ditu: otsailaren 28an, kapital sozialean 567.412.00 €, eta bazkideetan, 390 pertsona fisiko, 29 entitate eta 5 udal.

Ohi bezala, hemenxe ikus ditzakezue datu eguneratuak: <http://www.economiasolidaria.org/fiarenavarra>



FIAREKO BAZKIDEEN ESTATU MAILAKO BATZARRA

Iragan martxoaren 16an, Rivas Vaciamadrid-en **Fiareko bazkideen estatu mailako bigarren Batzarra** egin zen. Oraingoan ere, Fiareko partaide den lurralde ezberdinetako oinarri soziala biltzea zen helburua. Batetik, elkar ezagutu eta ikusteko, bigarrenik, handituz doan proiektuaren eta antolaketaren partaide sentitzeko eta, azkenik, Banca Popolare Eticarekin egiten ari garen integrazio prozesuaz sakonki jarduteko. Batzarrean 350 lagun inguru elkartu ziren eta oso esperientzia positibo iritzi zioten biltzeari.

Batzarrean ere **GIT edo tokiko taldeetako koordinatzaileek** ere bilera egin zuten. Ana Palacioses ere bertaratu zuen, Nafarroako tokiko taldeko koordinatzailea, eta bertan ipar eremuko (Nafarroako, Euskadiko eta Galiziako Fiareko taldeak) ordezkari gisa Carlos Ascunce bilbotarra izendatu zuten. Bilera hartan Italiako GITetako koordinatzaile batzuek ere parte hartu eta beren esperientzia ezagutzera eman zuten.



Bazkideen batzarrean honako gai garrantzitsuak landu ziren: bideragarritasun plana, banku-zerbitzuen eskaintza, Etikako Komitearen berritze eta hautapena, hartako koordinatzailea barne -Cristina de la Cruz-, eta Peru Sasia berrestea kooperatibako Administrazio Kontseilurako hautagai bezala, botoen %95 alde izan zituena.

FIARERI BURUZKO HITZALDI INFORMATIBOAK

Hitzaldi informatiboak gure proiektua zabaltzeko tresnarik eraginkorrenak dira. Hurbiltasuna lortzeko modua izateaz gain, aukera paregabea da proiektuan interesa duten pertsonekin dudak argitzeko, eztabaidatzeko, eta hausnartzeko.

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, Nafarroa osoko talde desberdinetatik hitzaldiak eskatu dizkigute. Azpimarratzekoa da **Fiare Banku Etikoa: Beste banku bat posible da** lemapean Iruñean otsailaren 21ean eginiko hitzaldia. Fiareko Presidente Peru Sasiak emanik, 200 lagun baino gehiago bildu zituen.

Era berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan SETEMek antolatuta jardunaldi batzuk egin dira martxoan zehar, honako lema erabiltuta: **Finantzak eta Etika, oximorona?** Banku etikoari eskainitako jardunaldiaren barnean dokumental bat eman zuten "¿Qué hacen con tu dinero?", eta ondoren mahai inguru bat egin zen, Fiare bertan zelaririk.



"CON TU DINERO" DOKUMENTALEAN

¿Qué hacen con tu dinero? Dokumentalean erakusten dira gaur egun estatu espainiarrean aurki daitezkeen finantza jarduera alternatiboak, ohiko bankuekiko desberdinak direnak.

<http://goo.gl/OsCLY>

ORKOIENGO UDALA FIAREKO BAZKIDE

Joan den martxoan, Orkoiengo udalak Fiare proiektuko bazkide izateko behar den kapital soziala harpidetu zuen. Horrekin, sei udalek babesten dute gure banku etikoko proiektua geure lurraldean: **Uharte, Antsoain, Berriozar, Aurrarabia, Burlata eta Orkoien.**

Fiareekin harremanetan jartzeko

Bulegoa: asteartetan 17 eta 20ak bitarte,
IPESen, Tejeria kalea 28, Iruñea
www.proyectoifiare.com
navarra@proyectoifiare.com ☎ 685 744 420
www.economiasolidaria.org/ifiarenavarra